

2026. urteko dirulaguntzen deialdia

Eremua: EUSKARA

Dirulaguntzen lerroa: EUSKARAREN ERABILERA

SUSTATZEA

1. artikulua. Esparrua eta xedea

Euskarako, Herritarren Arreta eta Partaidetzako, 2030 agendako eta Nazioarteko Gaietako Sailak, Euskara esparruaren barruan, “Euskararen Erabilera Sustatzea” dirulaguntza arloaren bitartez, jarduketa esparrutzat Bilbon euskararen erabilera sustatzea eta normalizatzea duten programak gauzatzeko dirulaguntza emateko deialdia egin du, “Bilboko AROA Plan Estrategikoa 2025-2035” planaren (hemendik aurrera, Bilboko AROA) ardatz estrategiko hauei jarraikiz¹: jarrerak/motibazioa, ezagutza/gaitasuna eta erabilera/elkarreragina. Horrela, Bilboko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburu hau lortzen da: “Euskararen erabilera sustatzea eta normalizatzea, hizkuntzak berak bizirik iraun dezan”.

Diruz lagunduko diren programak bi epe hauetako batean zehar gauzatuko dira:

- 2025-2026 ikasturtean zehar: 2025eko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 31ra.
- 2026. urtean zehar: 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.

2. artikulua.- Aplikatzekoa den araudia

Eskaerak ebazteko prozedurak honako hauetan araututakoa beteko du:

- Bilboko Udalak eta haren zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (2016ko uztailaren 20ko BAO),
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta azkenik, lege hori garatzen duen araudia.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Arrunta

Halaber, honako lege hauetan diru-laguntzen gainean ezarritakoa ere aplikatuko da:

- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, zehazki I. titulua.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, zehazki II. titulua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeakoa

¹ <https://bilbaeuskaraz.bilbao.eus/wp-content/uploads/2025/11/Bilboko-AROA-Plan-Estrategikoa-2025-2035.pdf>

3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1. Dirulaguntza eska dezaketen erakundeak hauek dira:

- Helburu nagusitzat euskararen erabilera eta normalizazioa dauzkaten elkarteak eta irabaz asmorik gabeko beste pertsona juridiko batzuk.

- Bestelako elkarteak eta irabaz asmorik gabeko beste pertsona juridiko batzuk.

3.2. Elkarte eskatzaileek Bilboko Udaleko Herritarren Partaidetzarako Entitateen Erregistroan (Euskara, Herritarren Arreta eta Partaidetza, 2030 Agenda eta Nazioarteko Gaietarako Saila, Campo Volantin pasalekua, 1bis, 5.solairua) inskribatuta eta datuak eguneratuta eduki beharko dituzte.

Salbuespen gisa, udalerrian egoitza soziala ez duen eta, beraz, udal-erregistro horretan sartzeko aukerarik ez duen elkarte batek dirulaguntza eskatzen badu Bilbon jardueraren bat egiteko, Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistro Orokorrean edo dagokion erregistro publikoan inskribatuta egotea eskatuko zaio.

3.3. Entitate eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta Bilboko Udalarekiko tributu-betebeharrak ordainduta izan behar dituzte, diru-laguntza eman, betebeharra onartu eta ordaintzen den unerako.

4. artikulua. Aurrekontu-kredituak

4.1. Deitutako dirulaguntzak Bilboko Udalaren aurrekontu orokorreko aurrekontu-kodearen 2026/00201 eta 2026 ekitaldirako onartutako 2026-13010-4-00201-00-2026 gastu-proiektuaren kontura finantzatuko dira.

Deialdi honetarako zenbatekoa 230.000€ da.

4.2. Deialdia onartzen denetik diru-laguntza ematen den arte egoera ekonomikoak okerrera egiten badu, zenbateko horiek gutxitu daitezke, defizitik ez izate aldera. Izan ere, betekizun hori Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan dago ezarria eta administrazio publikoek bete egin behar dute; lege horri jarraikiz, beraz, horrelakoetan aurrekontuak doitu egin behar dira.

5. artikulua. Diru-laguntzak emateko prozedura

5.1. Diruz laguntzeko kontzeptuari norgehiagoka-erregimena aplikatuko zaio. Diru-laguntzak emateko aurkeztutako eskariak alderatzen dira, lehentasun-ordena ezartze aldera, 9. artikuluan aipaturiko irizpideen arabera. Gero, diru-laguntza balorazio handiena lortu dutenei ematen zaie, betiere deialdian zehaztutako aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

Lerro honetan esleitutako dirulaguntzen zenbateko osoa haren aurrekontu-zuzkidura baino txikiagoa izango balitz, soberakinak *Eskola munduko programei laguntza* emateko lerroaren aurrekontu-zuzkidura handituko luke.

5.2. Norgehiagoka sistema erabiltzen den kasuetan, behin gutxieneko atalaserara helduta (40 puntu), emateko diru-laguntzaren zenbatekoa doitu egingo da, programa bakoitzak lortutako puntuazioaren araberrako portzentaje bat aplikatuz, taula honi jarraikiz:

Programari emandako puntuak	Emateko diru-laguntzaren %
80 puntu baino gehiago	Eskatutako zenbatekoaren % 100
70-80 puntu	Eskatutako zenbatekoaren % 80
70 puntu baino gutxiago	Eskatutako zenbatekoaren % 70

6. artikulua. Diruz laguntzeko (epigrafeak eta/edo) kontzeptuak

Bi kontzeptu diruz lagunduko dira:

- Helburu nagusizat euskararen erabilera eta normalizazioa dauzkaten elkarten programak (6.1. puntua).
- Bestelako elkarten euskarazko programak (6.2. puntua).

6.1. 1. Kontzeptua: Helburu nagusizat euskararen erabilera eta normalizazioa dauzkaten elkarten programak

6.1.1. Entitate eskatzaileak

ZEHAZTASUNAK:

Helburu nagusizat euskararen erabilera eta normalizazioa dauzkaten elkarteek eta irabaz asmorik gabeko beste pertsona juridiko batzuek eska dezakete.

KANPOAN GERATZEN DIRA:

Bilboko ikastetxeak eta ikasleen guraso-elkarteak, baita bestelako elkarteak eta irabaz asmorik gabeko beste pertsona juridiko batzuk ere.

6.1.2. Programa

Diruz lagunduko diren programek baldintza hauek bete behar dituzte:

- 1) Bilboko AROarekin lerrokatuta egotea, 3 ardatz estrategiko hauetako baten barruan: jarrerak/motibazioa, ezagutza/gaitasuna edo erabilera/elkarreragina.
- 2) Programak 3 ardatz estrategiko horien barruko erronka, lan-ildo, ekimen edo ekintzekin lerrokatuta egotea.
- 3) Programak osorik Bilbon gauzatzea.

Hala ere, kontuan hartu behar dira alderdi hauek:

- Ez dira diruz lagunduko aurkeztutako programak garatzeko elikagai, edari eta garraio-gastuak.
- Programak Bilboz gairik lurralde-esparrua ere baldin badu, ez da diruz lagunduko Bilbotik kanpora egiten den jardueraren zatiak eragindako gastua.

AURKEZTU BEHARREKO PROGRAMAREN GUTXIENKO EDUKIA:

- a) Programaren izena
- b) Aurrekariak, justifikazioa eta arrazoiak: Bilboko AROarekin duen lotura eta kokapena azaldu behar da.

- c) Helburuak
- d) Programaren azalpena: hartzailleak, jarduerak, antolakuntza, maiztasuna, iraupena, komunikazioa, irismena eta parte-hartzea.
- e) Metodologia
- f) Giza baliabideak eta baliabide materialak
- g) Programaren bidez landuko diren zehar lerroak: berdintasuna, kulturartekotasuna, osasuna, gazteria, irisgarritasuna
- h) Kronograma
- i) Ebaluazioa
- j) Gastuen aurrekontuaren zehaztapena

6.1.3. Emateko erregimena

<i>Erregimena</i>	Norgehiagoka
<i>Gehienezko dirulaguntza</i>	10.000 euro
<i>Gutxienezko atalasea</i>	40 puntu
<i>Aurkeztu ahal den gehienezko programa kopurua</i>	elkarte bakoitzeko 3

6.2. 2. Kontzeptua: Bestelako elkarten euskarazko programak

6.2.1. Entitate eskatzaileak

ZEHAZTASUNAK:

Bestelako elkarteek eta irabaz asmorik gabeko beste pertsona juridiko batzuek ere eska dezakete.

KANPOAN GERATZEN DIRA:

Bilboko ikastetxeak eta ikasleen guraso-elkarteak, bai eta helburu nagusiztat euskararen erabilera eta normalizazioa dauzkaten elkarteak eta irabaz asmorik gabeko beste pertsona juridiko batzuk ere.

6.2.2. Programa

Diruz lagunduko diren programek baldintza hauek bete behar dituzte:

- 1) Bilboko AROarekin lerrokatuta egotea, 3 ardatz estrategiko hauen barruan: jarrerak/motibazioa, ezagutza/gaitasuna edo erabilera/elkarreragina.
- 2) Programak 3 ardatz estrategiko horien barruko erronka, lan-ildo, ekimen edo ekintzekin lerrokatuta egotea.
- 3) Programak osorik Bilbon gauzatzea.

Hala ere, kontuan hartu beharko dira alderdi hauek:

- Ez dira diruz lagunduko aurkeztutako programak garatzeko elikagai, edari eta garraio-gastuak.
- Programak Bilboz gairik lurralde-esparrua ere baldin badu, ez da diruz lagunduko Bilbotik kanpora egiten den jardueraren zatiak eragindako gastua.

- Ez dira diruz lagunduko eskatzaileen euskara planak diseinatu eta garatzeari lotutako gastuak.

AURKEZTU BEHARREKO PROGRAMAREN GUTXIENeko EDUKIA:

- Programaren izena
- Aurrekariak, justifikazioa eta arrazoiak: Bilboko AROarekin duen lotura eta kokapena azaldu behar da.
- Helburuak
- Programaren azalpena: hartzaileak, jarduerak, antolakuntza, maiztasuna, iraupena, komunikazioa, irismena eta parte-hartzea.
- Metodologia
- Giza baliabideak eta baliabide material
- Programaren bidez landuko diren zehar lerroak: berdintasuna, kulturartekotasuna, osasuna, gazteria, irisgarritasuna
- Kronograma
- Ebaluazioa
- Gastuen aurrekontuaren zehaztapena

6.2.3. Emateko erregimena

<i>Erregimena</i>	Norgehiagoka
<i>Gehienezko dirulaguntza</i>	3.500 euro
<i>Gutxieneko atalasea</i>	40 puntu
<i>Aurkeztu ahal den gehienezko programa kopurua</i>	elkarte bakoitzeko 1

7. artikulua.- Eskabideak

7.1. Aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean hasiko da eta 2026ko otsailaren 20an amaituko da.

7.2. Informazioa eta dokumentazioa.

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia hemen egongo da eskuragarri:

- Bilboko Udalaren web orrian (www.bilbao.eus).
- Bilboko Udalaren gardentasun-atarian (www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/es/inicio).
- Diru-laguntzen Estatuko Datu Basean (www.infosubvenciones.es).
- Bilboko Udalaren Herritarren Informazio Bulegoan eta barrutietako udal bulegoetan, ohiko ordutegietan.

7.3. Bideratzea

Eskariak Udalaren web-orriaren bitartez edo udal erregistroan egin daitezke.

- Eskaria **Udalaren web-orria** medio bideratuz gero, aplikazioak eskatzen dituen pauso guztiak eman behar dira eta eskatzen dituen datu guztiak jarri behar dira.
- Eskaria **udal erregistroan** aurkeztuz gero, diru-laguntzaren arlo eta ildo bakoitzeko eskari-orri bat bete behar da, Bilboko Udalak zehaztutako ereduaren arabera.

Orri horretan erakunde eskatzaileak diru-laguntza ildo horretan zer programa aurkeztu nahi dituen zehaztuko du, arloari dagozkion diruz laguntzeko moduko kontzeptuen arabera.

Eskari-orria aurkeztu daiteke Hiritarrentzako Arreta Bulegoan, barrutietako udal bulegoetan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan legez ezarritako gainerako lekuetan.

7.4. Erakundearen legezko ordezkari edo legezko ahalordea duen pertsonak sinatuko du eskabidea, aditzera emanaz adierazitako datu guztiak egiazkoak direla eta erakunde eskatzaileak onuraduna izateko debekuetako bat ere ez duela (Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan ezartzen dira debekuok).

7.5. Diru-laguntza eskariek ezin dute gainditu, inola ere, programa bati emateko zenbateko handiena. Gehienezko zenbateko hori diruz laguntzeko kontzeptu bakoitzean zehazten da.

7.6. Halaber, eskari guztietan kontuan hartu behar da diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez lortzen den finantziarioak, guztira, ezin duela gainditu aurkeztutako programaren kostua.

7.7. Bilboko Udalak, aurkeztutako eskariak hobeto baloratze aldera, egoki irizitako argibide guztiak eska diezazkieke erakunde eskatzaileei.

7.8. Programa bakoitza diru-laguntzen udal-lerro baterako bakarrik aurkeztu beharko da.

8. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

8.1. Eskaria **Udalaren web-orriaren** bitartez bideratuz gero, bi dokumentu hauek aurkeztu behar dira, PDF formatuan:

- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, deialdiaren 6.1.2. edo 6.2.2. artikuluen arabera.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

8.2. Eskaria **udal erregistroan** aurkeztzen bada, **dokumentazio** hau gehitu behar zaio:

- Eskabide orria, emandako ereduaren arabera.
- Programa bakoitzaren aurrekontuaren fitxa, emandako ereduaren arabera Urtekoetan xehatutako ereduaren arabera.

- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, deialdiaren 6.1.2. edo 6.2.2. artikuluen arabera.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

8.3. Eskaera sinatzen duenak Bilboko Udalari baimena ematen dio betebeharrak fiskalen eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainketa egunean daukan egiazta dezan. Dena dela, ez baimentzeko aukera izango du, baina horretarako aurkeztu beharko ditu, administrazio eskudunak indarrean dagoen urtean emanik, zerga-betebeharrak ordainduta dauzkala egiaztatzen duen agiria eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dauzkala edo langilerik ez daukala egiaztatzen duen agiria.

8.4. Bilboko Udalaren diru-laguntzarik edo beste edozein kontzepturengatik ordainketarik jaso ez duten eta, beraz, Hartzekodunen Erregistroan ez dauden erakundeek "hartzekodunen fitxa" aurkeztu behar dute, behar bezala beteta.

8.5. Eskabideak ez baditu betetzen deialdi honetan ezarritako baldintzak, ez badago behar bezala formalizatuta edo aipatutako daturen bat edo dokumenturen bat falta bada, erakunde eskatzaileari eskatuko zaio akatsak zuzentzeko 10 egun balioduneko epe luzaezinean, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, administrazio-prozedura legean aurreikusitako moduan eman beharko den ebazpena eman ondoren.

9. artikulua. Balorazio-irizpideak

Aurkeztutako programak irizpide eta puntuazio hauek aplikatuz baloratuko dira:

A) Programa baloratzeko irizpideakGUZTIRA 85 puntu

a) Programaren interesa. Gehienez 48 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

- Programaren iraupena eta maiztasuna.
- Programaren irismena.
- Programaren parte-hartzea.
- Kolektibo hartzailea.

b) Programaren diseinuaren kalitatea..... Gehienez 10 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

- 6.1.2. eta 6.2.2. ataletan proposatutako egitura betetzea.
- Programaren azalpenaren zehaztasun maila.

c) Aurrekontua egokia izatea..... Gehienez 10 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

- Finantza-ahalegina (beste finantziario-iturri batzuk bilatzea).

- Baliabideak modu eraginkorrean egokitzea.

d) Programan gai hauek zeharka nola lantzen diren: euskara, genero-berdintasuna, kultura-artekotasuna, gazteria, irisgarritasuna, osasuna Gehienez 17 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

✓ **Berdintasuna:**.....Gehienez 5 puntu

Baliabideak (ekonomikoak, sozialak, kulturalak, kirolakoak, denbora, aisia, parte-hartze soziala eta politikoa, enplegua, osasuna...) eskuratzeko eta kontrolatzeko emakumeen eta gizonen egiturazko desberdintasunak kontuan hartzen dituzten programak, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta/edo genero-indarkeria errotik kentzeko helburu, ekintza eta/edo neurri zehatzak jasotzen dituztenak.

✓ **Euskera:**Gehienez 4 puntu

Herritar elebidunentzako euskarazko jarduerak dituzten programak

✓ **Kulturartekotasuna:**.....Gehienez 2 puntu

Kultura-aniztasuna eta lurraldeko migrazioei eta babeslekuei bereziki lotutako alderdiak kontuan hartzen dituzten programak, horiek aitortu eta ikusaraztera, berdintasuna sustatzera eta diskriminazioaren aurkako borrokara bideratutako helburu eta ekintzekin, bai eta aniztasun-testuinguruetan elkarrekintza positiboa sustatzera ere.

✓ **Gazteak:**.....Gehienez 2 puntu

12 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendutako jarduerak dituzten programak.

✓ **Ezgaitasuna:**.....Gehienez 2 puntu

Ezgaitasun fisiko, sentzorial eta intelektuala duten pertsonen erabateko parte-hartzea errazteko jarduketak edo zerbitzuak biltzen dituzten programak.

✓ **Osasuna:**.....Gehienez 2 puntu

Portaera eta jokabide osasungarriak garatzen laguntzen duten programak, osasun-arloko desberdintasunak azpimarratuz

B) Erakunde eskatzailearen balorazioa.....GUZTIRA 15 puntu

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria, euskararen arloan egindako jardueren aipamenarekin.
- Saretzea: koordinakundeetan, hainbat motatako udal-kontseiluetan, auzo sareetan, federazioetan eta beste batzuetan parte hartzea.
- Zuzendaritza parekidea izatea.

10. artikulua. Izapideak eta balorazioa

10.1. Prozeduraren instrukzio-organoa Euskarako, Herritarren Arreta eta Partaidetzako, 2030 agendako eta Nazioarteko Gaietako Saileko Euskarako Zuzendaritzari atxikitako langileek osatuko dute.

10.2 Aurrebaluazioko fase bat ezartzen da. Fase horretan, instrukzio-organoak egiaztatuko du erakunde onuraduna izateko behar diren baldintzak betetzen direla (3. artikulua), soilik eraginez automatikoki balioesten diren eta balioespenik behar ez duten betekizunei.

10.3. Kide anitzeko organo gisa jarduten duen balorazio-batzordea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritakoaren arabera, honako hauek osatuko dute:

Presidentea: Euskarako, Herritarren Arreta eta Partaidetzako, 2030 agendako eta Nazioarteko Gaietako Zinegotzi ordezkaria

Idazkaria: Euskarako Zuzendaria

Kidea: Euskara Teknikari bat

10.4. Deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera eskariak ebaluatu ondoren, Balorazio Batzordeak txostena egingo du, egindako ebaluazioaren emaitza jasotzeko.

10.5. Instrukzio-organoak, espedientea eta Balorazio Batzordearen txostena kontuan hartuta, behin betiko erabaki-proposamena egingo du.

11. artikulua. Berriz antolatzea

Behin programa guztiak baloratuta, erakunderen bati emateko zenbatekoa ez badator bat hark eskatutakoarekin, arau hauek beteko dira, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Bilboko Udalaren Ordenantza Orokorreko 10.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz:

A) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 edo handiagoa bada, Bilboko Udalak, ofizioz, erakundeak bere garaian aurkeztutako aurrekontua gutxituko du, proportzionalki.

Jardueraren amaieran, aldatutako azken aurrekontu hori justifikatu beharko du erakundeak.

B) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 baino txikiagoa bada:

a) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro edo gutxiago bada, prozedura aurreko atalean (A) zehaztutako berbera izango da.

b) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro baino handiagoa bada, Bilboko Udalak erakundeari jakinaraziko dio 10 eguneko epean programa berrantolatu beharko duela, aurrekontua zenbateko horren arabera egokitzeko, edo, bestela, diru-laguntzari uko egin beharko diola. Udalak, erakundearen erantzun espresua jasotzen ez badu, ulertuko du diru-laguntzari uko egitea erabaki duela.

12. artikulua. Ebazpena

12.1. Prozedura ebaztea Gobernu Batzarrari dagokio.

12.2. Eskariak ebazteko eta erakunde eskatzaileak jakinaren gainean jartzeko gehieneko epea 6 hilabete da, deialdia argitaratutako egunetik kontatzen hasita. Alde horretatik, onartutako zein ukatutako diru-laguntzen berri emango da.

Sei hilabeteko epea amaitu eta ebazpenaren berririk jaso ez badute, erakundeek, administrazioaren isiltasuna dela eta, diru-laguntza eskaria atzera bota dutela uler dezakete.

12.3. Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpenaren kontra erakundeek aukerako berraztertze errekurtsoa jar dezakete Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar dezakete, dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

13. artikulua. Diru-laguntzak ordaintzea

13.1. Orokorrean, diru-laguntzak aurrez ordainduko dira, justifikatu aurretik, oso-osorik, diru-laguntzari dagozkion jarduerak gauzatzeko behar den finantziario gisa eta inolako bermerik eskatu gabe.

13.2. Diru-laguntza banku bidezko transferentzia bidez ordainduko da, erakundeak Bilboko Udalaren Hartzekodunen Erregistroan duen kontu korrontean.

13.3. Erakunde onuradunak aurreko diru-laguntzaren bat justifikatzeko epea amaitu eta justifikatu ez badu, ez du diru-laguntza jasoko. Halaber, erakundeak aurreko diru-laguntzaren bat itzultzea eskatu eta itzuli ez badu, ez du diru-laguntza jasoko.

14. artikulua. Erakunde onuradunak diru-laguntzaren inguruko publizitatea egitea

Diru-laguntza jasotzen duten erakunde guztiek Udalaren finantziarioa jaso dutela adierazi beharko dute eta, horretarako, Bilboko Udalaren logotipoa jarri beharko dute sortzen dituzten paperezko materialetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), oroitzapenezko plaketan, bitarteko elektronikoa edo ikus-entzunezkoetan eta idatzizko komunikabideetan argitaratzen dituzten iragarkietan. Argitalpenetan, horrez gain, edukiaren gaineko erantzukizun-klausula bat jarri beharko dute, testu honekin:

Proiektu honek Bilboko Udalaren diru-laguntza jaso du, baina erakunde onuraduna da edukiaren erantzule bakarra.

Bilboko Udaleko sailek entitate interesdunei Bilboko Udalaren logotipoa emango diete.

Artikulu honetan jasotako publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak betetzen ez badira, diruz lagundutako programa edo jarduerarako emandako zenbatekoaren %10 itzuli beharko da.

Gainera, erakundeek bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, erabili behar dituzte diruz lagundutako programa edo jardueraren publizitatea egiteko sortzen dituzten kartel, testu eta dokumentuetan. Orobat, diruz lagundutako jarduera sustatzeko adierazpen publikoak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dituzte, ordena horretan. Hala ere,

hartzailen eta hedabidearen ezaugarriak kontuan izanda, euskara hutsean egin ahal izango dira

Halaber, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista kontuan hartu beharko da aurkeztutako dokumentazioan, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen Testu Bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23. artikulua eta Bilboko Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Ordenantzaren 15. artikulua betez.

Erakunde onuradunek jaso dituzten diru-laguntzen publizitatea gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako moduan eta baldintzen arabera egin beharko dute. Lege horretako 5.4 artikuluan jasotako aurreikuspenaz baliatuz gero, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalak bitarteko elektronikoa erabiliko du publizitatearen inguruko zereginak betearazteko.

15. artikulua. Azpikontratazioa

Erakunde onuradunek, jarduerak azpikontratatzeko, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 13. Artikuluan eta Diru-laguntzen Lege Orokorreko 29 artikuluan ezarritakoa bete behar dute, kontuan hartuta, gainera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak sartutako betebeharrak.

16. artikulua. Programa aldatzea

Programan aldaketa handiren bat egin aurretik, eskaria egin behar zaio Bilboko Udalari, erregistroa medio, eta Udalak berriaz baimendu behar du.

Aldaketa handiak egiteko eskariak arrazoitu egin behar dira, eta aurrekontuan eta kronograman zer eragin izango duten zehaztu behar da. Gobernu Batzarrak dagokion saileko ordezkariari eskuordetu dio aldaketa horiek baimentzeko zeregina.

Honako hauek hartzen dira aldaketa handitzat:

- Helburu orokor eta/edo espezifikoko aldatzea.
- Onartutako aurrekontu-partidetako zenbatekoak % 20 baino gehiago aldatzea (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ezin diete zeharkako kostuei eragin), programaren aurrekontu osoa gutxitu gabe.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzea badakar, Gobernu Batzarrak onartu behar du.

Diru-laguntzaren izaeraren eta helburuen funtsean eraginik ez duten aldaketak diru-laguntzak justifikatzen direnean onar daitezke, betiere aldaketa horiek onartzeak hirugarrenei kalterik egiten ez badie.

17. artikulua. Uko egitea

Behin diru-laguntza emanda, erakunde onuradunek diru-laguntzari uko egitea eska diezaiokete Bilboko Udalari, erregistro bidez.

Eskaria jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehen aurkeztu behar da eta dagokion saileko ordezkariak onartu ondoren izango du eragina. Erakundeak, hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzuli beharko du.

Uko egiteak kreditu nahikoa askatzen badu ukatutako eskabide bati erantzuteko, deialdian ezarritako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditzeagatik, laguntza ematen duen organoak erabaki ahal izango du, beste deialdirik egin behar izan gabe, diru-laguntza ematea haren ondorengo pertsona edo erakunde eskatzaileari edo eskatzaileei, puntuazioaren arabera.

18. artikulua. Beste diru-laguntza batzuekin bateratzea

Bilboko Udalak emandako diru-laguntzak bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatu batzuek emandako diru-laguntzekin. Betiere, diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez jasotako finantziazioak ezin du izan diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa.

Erakunde onuradunek Bilboko Udalari jakinarazi behar diote proiektu bererako beste diru-laguntza edo laguntza finantzario batzuk jaso dituztela, beste administrazio publiko batzuek emanda, udal ebazpenaren ondoren. Horretarako, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epea izango da, gehienez.

19. artikulua. Diru-laguntzak justifikatzea

19.1. Justifikatzeko epea

Erakundeek jasotako diru-laguntzak justifikatzeko hiru hilabeteko epea izango dute, programa amaitzen den egunetik kontatzen hasita, edo diru-laguntza jasotako egunetik, programa egikaritu ondoren jaso badute.

19.2. Justifikatu beharreko zenbatekoa

Diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako aurrekontuaren % 100 justifikatu behar da, ez Bilboko Udalak emandako zenbatekoa bakarrik, Diru-laguntzen Lege Orokorrean zehaztutako moduan.

19.3. Justifikatzeko sistema

Dirulaguntza justifikatzeko, erakunde onuradunak programa bakoitzean egindako gastuaren justifikazio-kontua aurkeztu behar du, honela:

- a) Erantzukizunpeko adierazpena, emandako ereduaren arabera.
- b) Programa gauzatzeko egindako jardueren memoria eta lortutako emaitzak. Horrek guztiak bat etorri behar du diru-laguntza eskatutakoan aurkeztutako programarekin. Proiektuaren memoria teknikoan zehaztu egingo dira egindako ekintzak, lortutako emaitzak, lortutako helburuak eta aurkitutako arazoak, genero-ikuspegitik. Beharrezkoa bada, proiektuaren eragina aipatuko da (alderdi teknikoak, ekonomikoak, sozialak, politikoak, ekologikoak eta emakumeen eta gizonen arteko

botere-erlazioari dagozkionak). Jardueren memoriak hizkuntza ofizialen kudeaketari buruzko informazioa jasoko du, diruz lagundutako jarduerari dagokionez; horretarako, diruz lagundutako jarduerak zein hizkuntzatan egin diren zehaztuko da.

- c) Programaren egikaritzeari dagokion gastu eta diru-sarreraren balantzea, emandako ereduaren arabera eginga.
- d) Programa egikaritzeko gastuen fakturen zerrenda, emandako ereduaren arabera eginga.
- e) Programa egikaritzeko aurreikusitako epean egindako gastuak egiaztatzeko jatorrizko frogagiriak, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 14.2 artikuluan ezarritako moduan. Hona hemen, zehatz-mehatz, zer frogagiri aurkeztu behar diren:

- Programa egikaritzeko zuzeneko kostu guztiak, fakturen eta froga-balio bera duten agirien bitartez justifikatuta.

Gastuak justifikatzeko frogagiriekin, beti, datu hauek eduki behar dituzte:

- Erakunde onuradunaren identifikazioa.
- Gastuaren helburuaren deskribapena; gastuak, betiere, programaren egikaritzearekin lotura zuzena izan behar du.

Alde horretatik, frogagirik justifikatzen duten programarenak izan behar dute, bakar-bakarrik.

Salbuespen gisa, enpresaburu edo profesional ez diren pertsona fisikoek noizean behin egiten dituzten jardueren kasuan, aurkeztu daitezke hitzartutako prestazioaren zenbatekoaren ordainagiria eta hartzaillearen nortasun-agiria (NAN, AIZ edo pasaportea). Alde horretatik, zenbatekoa 200 euro baino handiagoa bada, ordainketa hartzaillearen banku-kontuan egin izanaren egiaztatzea ere aurkeztu behar da, nahitaez.

Pertsonal-gastuak egiaztatzeko soldata-orriak (sortutakoa guztira) eta Gizarte Segurantzako kotizazioak (LIZ, langileen izenen zerrenda) aurkeztu behar dira .

- Zeharkako kostuei dagokienez, ez da frogagiririk aurkeztu behar, salbu berariaz eskatzen bada. Erakunde onuradunak kostu horiek diruz lagundutako jarduerari dagokion partean egotzi beharko dizkio, zentzuz, eskuarki onartutako kontularitzako printzipio eta arauen arabera, eta, betiere, kostu horiek jarduera gauzatu den aldikoak diren heinean. Egotzitako zenbatekoak ezin du izan, inola ere, diruz lagundutako programaren kostu zuzenen % 10 baino handiagoa.

Justifikazioari dagokionez, zeharkako kostuen portzentajeak erakundeak diru-laguntza jasotzeko aurkeztu duen aurrekontuan adierazitako berbera izan behar du, eta behar bezala justifikatutako zuzeneko kostuen gainean aplikatuko da.

- f) Diruz lagundu daitekeen kontzeptuaren zenbatekoa handiagoa denean sektore publikoko kontratuen legeriak kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoa baino²,

² Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera, kontratu txikiak 40.000 eurotik beherakoak izango dira (BEZik gabe), baldin eta obra-kontratuak badira; eta 15.000 eurotik beherakoak (BEZik gabe), hornidura- edo zerbitzu-kontratuak badira.

entitate onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie beste horrenbeste hornitzailei, obra egiteko konpromisoa hartu baino lehen, zerbitzua eman baino lehen edo ondasuna entregatu baino lehen.

Bestalde, justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntza-eskaeran aurkeztu beharreko eskaintzen arteko hautua efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera egingo da, eta, ekonomikoki abantailatsuen den proposamena hautatzen ez bada, memoria batean justifikatu beharko da, espresuki.

19.4 Justifikatzeko beste betebeharrak.

Memorian hizkuntza eta/edo irudi ez-sexistak erabili behar dira. Gainera, baloratu eta puntuatutako zeharkako politikei buruzko datuak aurkeztu beharko dira (berdintasuna, euskara, gazteak, kulturartekotasuna, ezgaitasuna, Osasuna)

19.5. Justifikaziorik ez edo justifikazio nahikorik ez.

Justifikazio-betebeharra ez betetzeak, nahikoa ez justifikatzeak edo 14. artikuluan aipatzen den publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak ez betetzeak berekin ekarriko du jasotako zenbatekoak, osorik edo zati batean, itzultzeko betebeharra, berandutze-interesarekin batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan ezarritako baldintzetan.

20. artikulua. Diru-laguntzen publizitatea

Urtea amaitu baino lehen, emandako eta ukatutako diru-laguntza guztiak Udalaren web-orrian argitaratuko dira.

Halaber, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen diru-laguntzen berri emango da, Diru-laguntzen Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.